


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**AUTOMOBILGINTZA PRIBATUAREN
TRIBUTAZIOA, KLIMA-ALDAKETARI
AURRE EGITEKO TRESNA**

Joana Moso Urkia

TUTOREA:

Irene Suberbiola Garbizu

2023ko EKAINA

**GRADU AMAIERAKO LANA
ZUZENBIDEKO GRADUA**

LABURPENA

Ikerketa lan honen helburua Espainian ibilgailuen gaineko ingurumen zergen ezarpena aztertzea da, garraio iraunkorra sustatzeko eta ingurumen kutsadura murrizteko estrategia den heinean. Zerga horien aplikazioa zehatz-mehatz aztertu nahi da, 2030 Agendak ezarritako helburuekiko eta "kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioarekiko koherentzia ebaluatuz. Gainera, azterlan hau beste herrialde batzuek hartutako zerga-neurrietan murgiltzen da, Espainiako politikekin alderatuz. Azterketa konparatibo horri esker, ibilgailuen gaineko ingurumen-zergen esparruan jasotako ikasgaiak eta jardunbide egokiak identifika daitezke, ikerketaren testuingurua aberastuz. Azkenik, azterketak "kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioarekin bat datozen epe labur eta luzeko zerga-neurriak proposatzean ditu. Neurri horiek arau-esparru sendo batean oinarritzen dira, eta honako helburu hauek dituzte: batetik automobilgintzaren sektorean jardunbide iraunkorragoak sustatzea, eta, bestetik estatuan zein nazioartean ezarritako ingurumen-helburuak lortzen laguntzea.

RESUMEN

Este trabajo de investigación tiene como objetivo examinar la implementación de impuestos ambientales sobre automóviles en España como una estrategia para promover el transporte sostenible y reducir la contaminación ambiental. Se busca analizar la aplicación de estos impuestos, evaluando su coherencia con el principio de "quien contamina paga" y los objetivos establecidos por la Agenda 2030. Además, este estudio se adentra en las medidas tributarias adoptadas por otros países, realizando un análisis comparativo que permite identificar buenas prácticas y lecciones aprendidas en este ámbito, enriqueciendo así el contexto de la investigación. Por último, el estudio se propone establecer medidas tributarias a corto y largo plazo que estén alineadas con el principio de "quien contamina paga". Estas medidas tienen como objetivo promover la adopción de prácticas más sostenibles en el sector automovilístico y contribuir a la consecución de los objetivos ambientales establecidos tanto a nivel estatal como internacional.

ABSTRACT

This thesis aims to examine the implementation of environmental taxes on automobiles in Spain as a strategic approach to foster sustainable transportation and mitigate environmental pollution. The primary objective is to analyze the execution of these taxes and evaluate their conformity with the "polluter pays" principle and the objectives delineated in the 2030 Agenda. Furthermore, this study explores the tax measures enacted by other states, conducting a comparative analysis to identify commendable practices and valuable insights in this realm, thereby enhancing the contextual framework of the research. Ultimately, the study endeavors to propose immediate and long-term tax measures that align with the principle of "polluter pays." These measures aim to stimulate the adoption of more sustainable practices within the automotive sector and contribute to the realization of environmental targets at both state and international levels.

LABURDURAK

AEAT	Zerga Administrazioiko Estatu Agentzia
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga
BPG	Barne Produktu Gordinaren
BEG	Berotegi-efektuko gasak
BEV	Bateriazko Ibilgailu Elektrikoak
CO2	Karbono Dioxidoa
DBT	Dibidendu Bikoitzaren Teoria
DBEO	Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren
EB	Europar Batasuna
EBJA	Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak
ELGA	Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
EIA	Europako Ingurumen Agentzia
EEJA	Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegia
EBFT	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu
GJH	Garapen Jasangarrirako Helburuak
IEA	International Energy Association
IEF	Azterlan Fiskalen Institutua
TBFT	Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu
AEFLO	Autonomia Erkidegoak Finantzatzeari buruzko Lege Organikoa
ON	Oxido nitrosoa
IEH	Hidrokarburoen gaineko Zerga Berezia
IIEE	Zerga Bereziak
IOT	Gauzen interneta
LHIEE	Zerga Berezien Legea
TMIZ	Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga
TAO	Trafiko eta Aparkaleku Ordenantza
TOALTB	Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bateginak
SER	Madrilgo Aparkaleku Arautuaren Eremua
GPS	Posizionamendu Sistema
UNFCCC	Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa
ZGZB	Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia
ZER	Valentziako Aparkaleku Arautuaren Eremua Bilboko

AURKIBIDEA

I. Sarrera.....	4
1. Zergak ingurumen-politikako tresna gisa.....	5
2. Ingurumen-ezarpenaren justifikazio teorikoa.....	12
I. IBILGAILUA ZERGA SISTEMA OROKORREAN.....	16
1. Edukitzaren gaineko zergak	17
a. Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia.....	17
b. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.....	23
2. Erabilerarako beharrezkoak diren produktuen gaineko zergak.....	25
a. Hidrokarburoen gaineko zerga	25
b. Zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga.....	27
c. Trakzio mekanikoko ibilgailuen karbono dioxidoaren isurien gaineko zerga:.....	28
3. Erabileraren gaineko tasak eta zergaz kanpoko ondare-prestazioak	29
a. Bidesariak	29
b. Aparkaleku-tasak	32
II. ELGAKO BESTE HERRIALDE BATZUEKIKO ALDERAKETA.....	32
1. Edukitzaren gaineko zergak	33
a. Matrikulazio zerga.....	33
b. Zirkulazio zerga.....	35
2. Erabilerarako beharrezkoak diren produktuen gaineko zergak.....	36
3. Erabileraren gaineko tasak eta zergaz kanpoko ondare-prestazioak	38
a. Bidesariak	38
b. Hiri-bidesariak	40
c. Aparkalekua.....	40
4. Espainiarekin alderaketa:	43
III. ONDORIOAK: GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUEKIN BAT DATORREN IBILGAILUEN TRIBUTAZIORAKO PROPOSAMENAK	45
1. Epe laburrerako proposamenak.....	46
2. Epe luzerako proposamenak:	49
IV. ERABILITAKO MATERIALA:	57

I. Sarrera

Ibilgailuen tributazioa lupa zeharo aproposa da tributu-zuzenbidearen arloko ikerketa lan bat egiteko. Azken batean, autoak - edo honen jabetzak, erabilerak eta eskualdaketak- bere baitan tributu anitz barnebiltzen ditu: bai zergak, bada tasak eta baita zergazkoak ez diren ondare-prestazioak ere. Ezaugarri honek, beraz, sistema ibilgailuen tributazioaren sistema konplexua eratzen du, tartean, araudi-corpus zabala eta azterketa-arlo hori arautzen duen jurisprudentzia garrantzitsua eratuz.

Diru-sarrera fiskaletatik haratago, ibilgailuen gaineko zergek ingurumen helburuei erantzuten diote. Ezaugarri honek erabat bereizten du beste tributu arlo askotatik, garraioaren arloa bereziki kutsakorra baita, eta beraz honen tributazioak ondorio hauei erantzuna emateko eta ondorio hauek ekiditzeko plangintza koherente eta efizientea behar du. Hori argi izanik, politikek kontuan izan behar dute garraioa eta industria ezinbesteko aurrealdintza direla enplegurako, azkunde ekonomikorako eta gizarte-ongizaterako (Khurshid et al., 2022). Hots, aldagai hauen arteko oreka hauskorrean datza ibilgailuekiko zerga politika eraginkorrak.

Egun, automobilekin lotutako zergen kutsu ekologikoa inoiz baino garrantzitsuagoa da, aurrez aurre dugun krisi klimatikoaren ondorioz. Industria eta garraioaren sektoreek, erregai fosilekiko mendekotasun handia dutenez, berotegi-efektuko gasen emisioen hazkunde esanguratsua eragin dute, abantaila ekonomikoak gorabehera, egoera horrek arriskuan jartzen ditu osotasun ekologikoa eta osasun publikoa (Wang et al., 2022). Garraioan erregai fosilak erabiltzeak ondorio bereziki kaltegarriak ditu ingurumenean (Avagyan, 2021). Garraioaren sektorea da, bereziki, CO₂ isurien igorle indibidual handiena, 2019ko guztizko CO₂ isurien ia % 41 hartzen baitu (IEA, 2021). Prebentzio-neurriak hartu ezean, isuri horiek are gehiago haziko dira hemendik 2050era (IEA, 2021). Garraioak, bakar-bakarrik, munduko berotegi-efektuko gasen ia herena eragiten du, Energiaren Nazioarteko Agentziaren arabera. Eskala handiko garraioaren ondorioz automobil-eskaria handitzea, azpiegituren garapena, eta industrializazio azkarra, Espainiako garraio-sektorearen epe luzeko jasangarritasunerako erronka argiak dira.

Begi-bistakoa da Grapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) eta garraioaren arteko lotura, helburu gehienak nolabait elkarloturik baitaude. Adibidez, 3.9 helburuak guztiontzako osasuna eta ongizatea bermatzea du helburu, garraiotik datozen berotegi-efektuko gasen

emisioak murriztea barne. Era berean, 7.3 helburuaren zutabea da energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoa bermatzea guztientzat, garraioan energia-eraginkortasuna sustatuz. Garraioa beste helburu batzuekin harremantzen da, hala nola, 8. helburuarekin (hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasagarria sustatzea) eta 9. helburuarekin (azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio jasagarria sustatzea eta berrikuntza sustatzea). Helburu horiek garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko garraio-sistema eraginkor eta jasagarri baten garrantzia nabarmentzen dute.

1. Zergak ingurumen-politikako tresna gisa

Ingurumena maila publikoan zein pribatuan babestek, eta ingurumen-kutsadura saihesteko beharra botere publikoek aurre egin behar dieten berehalako premia bihurtu da. Klima-aldaketa kudeatzeko eta egoera larri honen ondorioak arintzeko gobernuek beren konpromisoan jasotako deskarbonizazio-helburuekin eta ingurumena babestearekin bat etorritik legeak egiteko betebeharra dute.¹

Arazo zabala da eta, hortaz, argi dago legegileak kontuan izan behar duela legeek ingurumenean duten eragina legegintza prozesu orotan. Zuzenbide zibilean, enpresei ingurumenari eragindako kalteengatik erantzukizuna ezartzen duten legedia garatu da, Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legea bezalako legeriaren bidez (26/2007 Legea). Lege horrek legezko erantzukizun-esparru zehatz bat ezartzen du eragindako ingurumen-kalteengatik eta kaltea konpontzeko betebeharragatik. Bestalde, zuzenbide penalari dagokionez, ingurumenari kalte egiten diotenak zigortzen dituen araudia ezarri da, Espainiako Zigor Kodean arautzen den delitu ekologikoaren figuraren bitartez. Zehazki, 325. artikulua eta 326. artikulua dira delitu ekologikoari buruzko artikulak. Aire, ura edo lurzorua modu larrian kutsatzen duten pertsonentzat, edo paisaiaren degradazio larria eragiten dutenentzat, bai eta itsasoan edo lurpean isurketa toxikoak egiten dituztenentzat zehapenak ezartzen dituzte artikulua hauek. Administrazio-zuzenbideari dagokionez, ingurumeneko administrazio-zuzenbidearen helburua da Administrazio Publikoaren eta ingurumenaren arteko harremana arautzea. Baliabide naturalen erregulazioa, hondakinen kudeaketa, kutsaduraren prebentzioa eta kontrola barne arautzen ditu. Espainian, ingurumen-zuzenbide

¹ Espainiak kutsadura saihesteko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko konpromisoa hartu du nazioarteko hainbat akordioen bidez, hala nola 1997ko Kiotoko Protokoloa eta 2015eko Parisko Akordioa. Europar Batasuneko kide ere bada, eta asmo handiko helburuak ditu deskarbonizazioaren eta ingurumenaren babesaren arloan.

administratiboaren arloko araudi nagusietako bat Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legea da, natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko eta hobetzeko araubide juridikoa ezartzen du lege honek. 2013 urtean lege honi Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legea (21/2013 Legea) gehitu zitzaion: planen, programen eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautzen du, ingurumen-inpaktu negatiboak prebenitzeko, murrizteko eta zuzentzeko.

Ingurumen zuzenbidea hedatze bidean dagoela argi dago, baina norantza hedatzen den erabakitzea garrantzitsua da GHJ-ak ardatz izanik legegintza ahalik eta eraginkorrena garatzeko. William Nordhaus ingurumen-ekonomialariaren arabera (2018an Ekonomiako Nobel Sari irabazlea), neurri ekonomikoak eraginkorragoak izan ohi dira kutsadura murrizteko zigorrekin alderatuta. Beraz, zuzenbidearen beste arlo batzuetako ingurumen-legeria garrantzitsua bada ere, ikuspegi zabalagoa eta neurri politikoen multzo baten beharra dugu, garapen jasangarriko helburuak lortzeko pizgarri ekonomikoak barne hartzen dituzten neurriak hain zuzen ere, ingurumena babesteko sistema eraginkor bat aipatzen dutenak (Nordhaus, W. D. 2013).

Ekonomia-politika gobernu edo agintaritza ekonomikoa herrialde edo eskualde bateko ekonomian eragiteko hartzen dituen erabaki eta ekintzen multzoa da. Politika horren barne, besteak beste, zerga-, diru-, merkataritza- eta erregulazio-neurriak ezartzen dira, helburu makroekonomiko orokorrak lortzearren, hala nola, hazkunde ekonomikoa eta enplegu betea². 90eko hamarkadatik aurrera, ingurumenaren defentsa helburuen zerrendari gehitu zaio, eta krisi klimatikoa dela eta, protagonismo argia hartu du herrialdeko neurri ekonomikoak egituratzeko moduan.³

² Testuinguru honetan aipatzen den helburuen zerrenda Garapen Jasangarriko Helburuak dira. Helburu horiek Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zituen 2015ean, Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren testuinguruan. Helburu horiek ingurumena babestearekin eta klima-aldaketaren aurkako borrokarekin lotutako xedeak biltzen dituzte, eta garrantzia hartu dute klima-krisiari erantzuteko neurri ekonomikoak egituratzeko moduan (ikus Baumol, W. J. & Blinder, A. S. 2015).

³ Laurogeita hamarrek hamarkadan, Espainiak bat egin zuen klima-aldaketaren aurka borrokatzeko nazioarteko akordioekin, hala nola 1992an Rio de Janeiron sinatutako Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenarekin (KANBEK) eta 1997an sinatutako Kiotoko Protokoloarekin. Nazioarteko akordio horiek berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta berotze globala prebenitzeko helburuak ezartzen dituzte. Espainiaren kasuan, 2008-2012 aldirako emisioak % 15 murrizteko konpromisoa hartu zuen herrialdeak, 1990eko mailekin alderatuta, Kiotoko Protokoloan ezarritako helburuen arabera. .

Tresna ekonomikoak politika ekonomikoaren baitan erabiltzen diren tresnak dira, eragile ekonomikoen portaeran eragiteko eta, horrela, aipatutako politika publikoko helburuak lortzeko. Nordhausek esandakoaren ildotik, Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundearen arabera, tresna ekonomikoak eraginkorragoak izan daitezke araudi eta legeria tradizionalak baino, eragile ekonomikoei aukera ematen baitiete modu malgu eta sortzailean erantzuteko prezioen eta kostuen pizgarriei. Gainera, tresna horiek pizgarriak sortzazake eragile ekonomikoek teknologia eta praktika jasagarriagoak eta ingurumena errespetatzen dutenak har ditzaten. Hainbat tresna ekonomiko mota daude, eta ELGAK honela sailkatzen ditu:

1. Emisio eta isuriengatiko tasak eta zergak: substantzia kutsatzaileak sortzen dituzten edo ingurumenerako kaltegarriak diren hondakinak isurtzen dituzten enpresei aplikatzen zaizkien tributuak dira.
2. Ingurumen-zerbitzuengatiko tasak: ekosistemek emandako ingurumen-zerbitzuak erabiltzen dituzten edo haietatik onura ateratzen duten enpresei edo gizabanakoei kobratzen zaizkien tributuak dira, hala nola airean karbonoa erakartzea edo klima arautzea.
3. Produktuen gaineko tasak eta zergak: ondasunak eta produktuak ingurumenean duten eraginaren arabera zergapetzen dituzten tributuak dira. Tributu horiek, adibidez, baliabide naturalen kontsumoan, substantzia kutsatzaileen isurketan edo osasun publikoaren gaineko inpaktuan oinarritu daitezke.
4. Administrazio-zerbitzuengatiko tasak: ingurumen-kudeaketarekin zerikusia duten administrazio-zerbitzuengatik kobratzen diren tributuak dira, hala nola ingurumen-baimenak lortzeagatik, instalazioak ikuskatzeagatik edo hondakinak kudeatzeagatik kobratzen direnak.
5. Isurketa-baimenen merkatua: sistema honen bidez, enpresek isuri dezaketen substantzia kutsatzaileen kopurua arautzen duten baimenak eros eta sal ditzakete. Horren bidez, enpresa bakoitzak baimendutako gehienezko emisio-muga du. Baimendutakoa baino gutxiago jaulkitzen badute, soberako baimenak saldu ahal izango dituzte; aldiz, baimendutakoa baino gehiago jaulkitzen badute, baimen gehigarriak erosi beharko dituzte.

6. Gordailu- eta kontsigna-sistema: produktuaren prezioari gordailu gehigarri bat kobratzen zaion sistema bat da, eta kontsumitzaileari itzultzen zaio ontzia hutsik itzultzen duenean.

7. Subsidioak: enpresei edo gizabanakoei jarduera jakin batzuk sustatzeko ematen zaizkien dirulaguntzak dira, hala nola, teknologia garbiagoetan inbertitzeko edo praktika jasangarriagoak hartzeko. Sorospenak zuzenekoak izan daitezke, diru-transferentzia gisa, edo zeharkakoak, hala nola, tributuak edo tasak ordaintzetik salbuestea.

Testu honetan, garraioaren gaineko tributu berdea izango dugu ardatz, politika publikoko tresna ekonomiko gisa, garraioak sortutako kutsadurari aurre egiteko. Tributu berdeak arestian aipatutako edozein tresna ekonomikoren bidez aplikatu daitezke, baina testu honetan garraioeko tributazioari erreparatzen diogu eta, beraz 1,2 eta 3 neurriak aztertuko ditugu gehienbat. Lehenik eta behin, tributu berdeen kontzeptuaren analisi bat bideratuko dugu ekonomia deskarbonizatzeko tresna ekonomiko gisa aztertuz.

Analisi honi hasiera emateko, "ingurumenaren gaineko tributu" terminoa definitu behar dugu, esanaiaren barnean kokatzen diren figurak identifikatu ahal izateko. Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) bere zerga-oinarrian ardatz izanik definitzen ditu ingurumen-tributuak: ingurumenean eragin negatiboa, egiaztatua eta espezifikoa duen materialen baten unitate fisikoa (edo baliokidea) duten tributuak dira ingurumen-tributuak. (EIN 2012). Begi-bistakoa da horrelako kargak zerga extrafisikalen esparrukoak direla; hau da, zerga-bilketa hutsetik haratago doazen helburuekin ezartzen dira, eta helburu hori, tributua berdeen kasuan, ingurumena babestea da⁴. Rosembuj-ek adierazten duen bezala, ingurumen tributua ondasun kolektiboa dugun ingurumena babesteko gizarte zibilaren tresna bat da (Rosembuj, T. 1995). Hori esanda, badira izendapen hain zabal eta idealista horrekin kritikoak diren egileak. Buñuel Gonzalezek argudiatu duenez, tributu bat ingurumenekotzat jo ahal izateko pizgarri bat sortu behar du, lortu nahi den ingurumen-helburua lortzeko. Ez da nahikoa bere diru-sarrerak ingurumen-helburuetara bideratzea; aitzitik, tributu horiek prezioetan eragin dezaten kutsadurak eragindako kostu sozialak kontuan hartu behar dituzte (Buñuel Gonzalez, 2009).

⁴ Tributu berdeek beren diseinuan ingurumen-kalte bat txertatu nahi dutenez, hau da, jarduera ekonomikoaren kanpokotasun negatiboa (kanpo-kostua) konpondu nahi dutenez, gomendagarria da zerga-tasa isurketei, kontsumoari edo ekoizpenari lotutako ex terno kostu marjinalera hurbiltzea. Hala ere, emisioak murrizteko helburuen arabera edo baliabide naturalen erabilerari buruzko helburuen arabera taxutu daitezke (IEF, 2022).

Ingurumen-babesaren testuinguruan ohikoenak diren tresna ekonomikoak aztertu ondoren, eta helburu horretarako ingurumen-tributuak nola erabiltzen diren zehazturik, orain azken horiek erdiratzearen arrazoia garatuko dugu. Zerga-ezarpenaren erabilerari dagokionez, esan beharra dago beste lege-mekanismo batzuen aldean, tributu ekologikoek abantaila argiak dituztela, hauek jarraian aztertuko ditugu.

Lehenik eta behin, ingurumen-zergek, beste mekanismo ekonomiko batzuek ez bezala, eragin desberdina izan dezakete eragile ekonomiko eta sozialen arabera eta haien lurralde eraginaren arabera. Horrek esan nahi du zuzeneko erregulazioa baino malguagoa dela; izan ere, erregulazio horretan muga kuantitatibo berdinak ezarri behar dira guztientzat, bai banakoentzat, bai enpresentzat⁵. Aitzitik, tributuak ez du zuzenean mugatzen eragile ekonomikoek isurtzen duten kutsadura, betiere kutsadura horri dagokion zerga-ordainketa egiten bada; beraz, erramienta malgua da. Horren ondorioz, eragile ekonomikoek beren emisio kutsatzaileak mugatzeko aukera dute, “gutxiago kutsatzen badut, gutxiago ordainduko dut” premisa aurrean izanik⁶. Prozesu horrek fenomeno bat sortzen du: agente kutsatzaileak giroko zerga-tasa deskontaminatzeko kostu marjinalaren parekoa izatera iritsiko dira. Hau da, ordaindu beharko lituzketen zergengatik errentagarri izateari uzten dioten punturaino kutsatzea. Horren ondorioz, enpresek prozesu eraginkorrakoak aukeratzen dituzte eta kutsadura murrizten da.

Bestalde, ingurumen-zergek erraztu egiten dute “kutsatzen duenak ordaindu behar du” printzipioa -ELGak 1972an ezarritakoa- abian jartzea⁷. Printzipio horren ardatz etikoa da kutsatzen dutenek jasan beharko dutela kutsadurari lotutako kostua. Kutsadura kanpo-efektu

⁵ Ingurumenaren narriadura eragiten dutenen artean heterogeneotasun handia dagoenez, eta erregulatzaileren eta kutsatzaileen artean informazio asimetrikoa ematen denez (kostuei eta emisio kutsatzaileak murrizteko aukerei buruz), ingurumen-postuek ingurumen-hobekuntzak lortzen dituzte kostu txikienean. Izan ere, beste aukera erregulatzailerekin batzuekin gertatzen denaren aurrean (estandar teknologikoak, emisio-mugak, besteak beste), tributu horiek eragileak egokitzea ahalbidetzen dute, eta, ondorioz, inaktuak murrizteko dituzten aukerak eta kostuak automatikoki erakusten dituzte (IEF 2022).

⁶ Sistema hau baliatuz, gainera, tributuetuak era zuzenean antzeman dezake politikak duen eragina. Gardentasun horrek erraztu egiten du konpentsazio-neurriak edo doikuntza teknikoak definitzea postu horietan, lehiakortasuna edo balizko ondorio banatzaile kaltegarriak babesteko. Bestalde, gero eta ebidentzia akademiko handiagoa dago eragile ezberdinek politika zuzentzailearen aurrean intentsitate handiagoz erreakzionatzen dutela esateko, ikuspena zenbat eta handiagoa izan (IEF 2022).

⁷ "Kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioa Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) ezarri zuen Ingurumenaren Egoerari buruzko 1972ko Txostenean. Printzipio horren oinarrian ideia hau dago: ingurumena kutsatzen duten enpresek eta pertsonen ingurumena garbitzearekin eta lehengoratzarekin lotutako kostuen erantzule izan behar dute. Ingurumen-tributuak tresna garrantzitsua dira printzipio hori ezartzeko, ingurumen-kostuak jarduera ekonomikoan barneratzeko erabiltzen baitira.

negatiboko kasu eredugarria da, eta merkatuaren akats hori kudeatzeko mekanismo gisa ezartzeko aukera estrategia klasikoa da ekonomian: azken batean, kutsadurak eragindako kanpo-eragina barneratzea da helburua. Bestela esanda, helburua da kutsatzen duten horiexek (eta ez kutsatzen ez dutenak) izatea kutsadurari lotutako kostu osoa jasaten dutenak.

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea zerga-tresnak ingurumen-helburuetarako erabiltzeak ez duela esan nahi zerga-figura gisa duten funtsezko funtzioari uko egiten zaionik. Ingurumen tributuek bi mutur dituzte, Estaturako baliabide ekonomikoak biltzea eta, horrela, behar publikoei eustea. Hots, ingurumen-tributuak ezartzean, bildutako funtsetan oinarritutako politika publikoak ezarri behar dira; hau da, politika horiek ingurumenaren aldeko jokabideak sustatu behar dituzte, jokabide horiek sustatzeko pizgarriak eta laguntzak sortuz (Espitia, J., et al 2017).

Ingurumen-tributazioaren abantaileri buruzko eztabaidan ezinbestekoa Dibidendu Bikoitzaren Teoria (DBT) aipatzea. Teoria hori ekonomiako eta ingurumeneko hainbat adituk aztertu dute, hala nola, Pearcek, Gagok eta Labandeirak. Teoria horren arabera, hobekuntza lor daiteke ekonomian zein ingurumenean, berotegi-efektuko gasen isurien gaineko zergak ezarriz eta sortutako diru-sarrerak erabiliz beste tributu distortsionatzaile batzuk murrizteko. Hidrokarburoen kasua adibide gisa hartuta, tributu horiek erregai fosilen erabilerak sortutako gas kutsatzaileen isurketa zergapetzen dute. DBTaren arabera, hura ezartzeak eta beste tributu distortsionatzaile batzuk murrizteak onurak eragin ditzakete, bai ekonomiarentzat, bai ingurumenarentzat⁸. Bestela esanda, hidrokarburoen gaineko zergak lagungarriak izan daitezke gas kutsatzaileen emisioak murrizteko eta teknologia garbiagoak eta jasangarriagoak aukeratzea sustatzeko. Gainera, sortutako diru-sarrerak beste zerga desitxuratzaile batzuk murrizteko erabiltzeak eraginkortasun ekonomikoa hobetu dezake, eta teknika horiek aplikatzen dituzten herrialdeetako ekonomiaren hazkundea sustatu⁹. Hala ere, zenbait adituk Dibidendu Bikoitzaren teoriaren eraginkortasunari buruzko zalantzak planteatu dituzte, eta

⁸ Tributu distortsionatzaileak eragile ekonomikoen portaerari eragiten diotenak eta ekonomian eraginkortasunik eza eragiten dutenak dira. Tributu horiek ondasun edo zerbitzu baten eskaintzari zein eskaerari eragin diezaiekete, eta horrek prezio erlatiboetan distortsioak eragiten ditu. Ingurumen-zergeren kasuan, hala nola gas kutsatzaileen emisioa zergapetzen dutenetan, dibidendu bikoitza sor dezakete; izan ere, emisioak murrizteaz gain, eraginkortasun ekonomikoa ere hobetzen dute, beste tributu distortsionatzaile batzuk murrizten baitituzte (Triguero et al., 2013).

⁹ Tributu desitxuratzaileak dira baliabide ekonomikoen esleipen efizientean aldatetak sortzen dituztenak eta eragile ekonomikoen portaera desitxuratzen dutenak. Tributu horiek ondasunen eta zerbitzuen prezio erlatiboari eragin diezaiekete, bai eta enpresen eta kontsumitzaileen ekoizpen- eta kontsumo-erabakiei ere (Mankiw, 2018).

zergen ondorioak aurreikustezinak izan daitezkeela adierazi dute¹⁰. Garrantzitsua da kontuan hartzea ingurumen-tributuak ezartzea gai konplexua dela, eta faktore askoren mende dagoela, hala nola, herrialde bakoitzaren ezaugarrien, eragindako sektore ekonomikoaren, diru-sarrera mailen eta garapen teknologikoaren mailaren mende.

Laburbilduz, ingurumen-tributuak ingurumenaren gaineko eragina minimizatuko duten politika publikoak egituratzeko gakoetako bat dira, kanpoko ondorio negatiboak kostu minimo batean barneratzea lortzen baitute (Gago et al., 2009). Ingurumen-tributuak tresna eraginkorrak dira garapen jasagarria sustatzeko, ingurumena babesteko helburuen prisma zehatzetik jokabide onuragarriak hartzeko pizgarri bat sortzen baitute eta jarduera kutsatzaileek sortzen dituzten kanpoko ondorio negatiboetara aurre egitera bidera daitekeen diru-bilketa areagotzen dutelako.

Ingurumen-tributuak sailkatzeko hainbat modu daude. EIN eta Europako Estatistika Bulegoak (Eurostat), ingurumen-izaeraren arabera, honako hauek bereizten dituzte:

- Energiaren gaineko tributuak: produktu energetikoen gaineko tributuak, garraiorako erabili edo ez, eta gas-isurpenak zergapetzen dituztenak.
- Garraioaren gaineko tributuak: automobilen edo beste garraiobide batzuen jabetzarekin eta erabilerarekin lotutakoak sartzen dira, baita garraioarekin lotutako zerbitzuak ere.
- Kutsaduraren gaineko tributuak: hondakin solidoak eta kutsadura akustikoa airera eta uretara isurtzea, gas-isurien gaineko tributuak izan ezik.
- Baliabideen gaineko tributuak: baliabide naturalen erauzketa, kutsadura eta higadura eragin dezakeena.

Lan honetan garraioaren gaineko tributuak izango ditugu aztergai, ibilgailuek ingurumenean duten eragin dramatikoa dela eta. Axioma hori bera mugikortasunaren esparruan aplikatzean, Europako Ingurumen Agentziaren (AEMA) arabera, errepide bidezko garraioa da EBn berotegi-efektuko gasen emisio-iturri nagusia, eta garraioaren sektoreko CO₂ isurketen %

¹⁰Hainbat egilek zalantzan jarri dute dibidendu bikoitzaren teoriak ingurumen-tributuei dagokienez duen eraginkortasuna. Stanforderko Unibertsitatearen azterlan baten arabera, William Goulder eta Ian Parry ekonomialariek adierazi dute horrelako tributuaren ezarpenak ezin aurreikusizko ondorioak izan ditzakeela merkatuan eta ekonomian, eta horrek zaildu egiten du isuri kutsatzaileen murrizketan eta beste ingurumen-helburu batzuetan izango duen benetako eragina aurreikustea (Goulder eta Parry, 2008).

72ren erantzule da 2019an. Europako Batzordeak ondorioztatu du airearen kutsadura dela urtean 400.000 heriotza goiztiar inguru eragiten dituena EBn (AEMA, 2019). Hori gertatzen da ibilgailuek isuritako partikula finekin: bereziki kezkarriak dira biriketari sartzeko direlako eta arnasketa-arazoak eta arazo kardiobaskular larriak sortzen dituztelako. Zifra kezkarri horiek agerian uzten dute garraioaren kanpo-eragina; beraz, horri aurre egiteko, GHJekin bat datorren tributu-sistema bat ezarri behar da, “kutsatzen duenak ordaindu dezala” printzipioarekin bat datorrena zehazki. Gainera, natura-baliabideak zaintzeko eta klima-aldaketa prebenitzeko edo, gutxienez, haren aurka borrokatzeko neurriak hartzeko premiari buruzko kontzientzia sortzen lagun dezakete tributu hauek, eta, horrela, ingurumen-erantzukizunaren eta jasangarritasunaren kultura sustatu da gizartean. Oreak hori ezinbestekoa dugu gure ekonomia era iraunkorrean hazi dadin.

2. Ingurumen-erantzukizunaren justifikazio teorikoa

Ingurumenaren zaintza politika sozial eta ekonomikoaren funtsezko zutabeetako bat da, eta, beraz, legeria, praktika judiziala eta botere publikoen jarduna ehuntzen ditu. Ingurumeneraz gozatzeko eskubidea eta hura zaintzeko betebeharra gizarte osoarena den interes kolektiboa dira. Honi jarraiki, hainbat erreferentzia juridiko-positibo ezarri dira, eta horien gainean oinarritzen da ingurumen-erantzukizunaren tributuak, bai estatuan, bai nazioartean.

Estatu-mailan, abiapuntutzat hartzen dugu sektore publikoa behartuta dagoela indarrean dagoen testu juridiko garrantzitsuenaren arabera jardutera: 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera. KEren 45. artikulua ezartzen duenez, guztiek dute pertsonaren garapenerako egokia den ingurumenaz gozatzeko eskubidea, bai eta hura zaintzeko betebeharra ere. Eskubide hori Ingurumen Erantzukizunari buruzko 26/2007 Legeak eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak babesten dute. Lege horiek ezartzen dute herritarrek eta enpresek ingurumena babestu eta zaindu behar dutela. Gainera, Konstituzioak 46. artikuluan ezartzen du botere publikoek bermatuko dutela Espainiako herrien ondare historiko, kultural eta artistikoaren eta hura osatzen duten ondasunen kontserbazioa eta aberastea, horien araubide juridikoa eta titulartasuna edozein izanik ere. Horrela, artikulua Estatuari ematen dio egungo eta etorkizuneko belaunaldientzako herrialdeko baliabide naturalak eta kulturalak babesteko eta zaintzeko erantzukizuna.

Konstituzio-oinarri horri esker, legeria zabala sortu ahal izan da ingurumen-zuzenbidearen arloan, zerga-zuzenbidetik haratago. Adibide gisa, azaroaren 15eko 34/2007 Legeak, airearen kalitatearen eta atmosferaren babeserako araudiak, airea eta atmosfera kutsaduraren eta berotegi-efektuko gasen emisioen aurka babesteko oinarriak ezartzen ditu, aipatutako konstituzio-printzipioen ildotik. Zehazki, lege honek airearen kalitateari buruzko neurriak eta planak ezartzen ditu, bai eta emisio kutsatzaileen inbentarioak egiteko eta kutsaduraren muga-balioak gainditzen dituzten udalerrietan airearen kalitatea hobetzeko planak egiteko betebeharra ere.

Garraioaren arloarekin estuki lotua dagoen beste adibide bat uztailaren 8ko 15/2005 Legea da, mugikortasun jasangarria sustatu eta bultzatzekoa. Arau honen bidez, Espainian garraio jasangarria sustatzeko oinarriak ezarri ziren. Berriz ere ingurumena babesteko eta baliabide naturalak zentzuz erabiltzeko konstituzio-printzipioetan oinarrituta, eta herrialdearen garapen jasangarria sustatzeko premian oinarrituta, garraio publikoaren erabilera sustatzeko betebeharra ezartzen du, baita ibilgailu partikularren ordezkotako aukerak sustatzekoa ere, hala nola, bizikleta edo oinezko mugikortasuna. Ildo beretik, Espainiako Gobernuak garraioaren sektorean CO₂ emisioak murrizteko neurri zehatzak ezarri ditu, adibidez, ibilgailu elektrikoentzako zerga-pizgarriak ezartzea edo zenbait hiritan emisio txikiko eremuak ezartzea. Gainera, jaso berri dugun Energiaren eta Klimaren Plan Nazional Integratuak helburu argiak zehazten ditu datozen urteetan garraioaren sektorean berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko.

Laburbilduz, ingurumen-alorreko tributu-ordainketa hainbat faktorek justifikatzen dute Estatuan. Alde batetik, haren legitimitatea Konstituzioaren oinarri sendoak babesten du, honek ingurumen osasungarri eta orekatuaz gozatzeko eskubidea aitortzen baitie herritarrei. Bestetik, ingurumen-tributuak ezartzea tresna eraginkorra da ingurumen-kostuak barneratzeko eta, ondorioz, baliabide naturalen erabilera eraginkorra sustatzeko eta ingurumen-degradazioaren prebentziorako. Azpimarratu nahi dugu, gainera, dagoeneko ezarrita dagoen legedi zabala egon badagoela estatuan eta nazioartean, ingurumena babestea eta zaintzea helburu duten zergak eta tasak aplikatzeko lege-oinarri sendoa ematen duena.

Estatu-esparrutik haratagoko justifikazioari dagokionez, lehenik eta behin, tributu berdeei buruzko Erkidegoko legeria ikusiko dugu: Europar Batasunak klima-aldaketaren aurkako

borroka eta ingurumenaren babesa ezarri ditu erakundearen helburu nagusitzat. 1997an Amsterdamgo Ituna sinatu zenetik, EBk ingurumena babesteko politika eta estrategia ugari garatu ditu. Europar Batasunak berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta airearen eta uraren kalitatea hobetzeko neurriak hartu ditu. Era berean, asmo handiko helburuak ezarri ditu energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarrien ekoizpena handitzeko. Politika horien ildotik, beraz, ez da harritzekoa Europar Batasunak ingurumen-zergen erabilera sustatzeko neurriak ezarri izana: Kontseiluaren 2003/96/EE Zuzentarauak, 2003ko urriaren 27koak, energia-produktuei eta elektrizitateari tributuak ezartzeko esparru komun bat ezartzen du. Zuzentaru hori biziki garrantzitsua izan zen tributu arloan, Europan zerga berezien gutxienerako multzo bat ezartzen zuelako, energia- eta elektrizitate-produktuen gaineko zergak barne, eta estatu kideei ingurumenaren babesa sustatzeko zerga gehigarriak aplikatzeko aukera eman zuelako. Honen baitan, Espainiak Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen transposizioa bideratu zuen: Kontseiluaren 2003/96/EE Zuzentarauak zerga bereziak arautu zituen, eta horien artean zeuden hidrokarburoen, gas naturalaren, ikatzaren eta elektrizitatearen gaineko tributuak, gaurkoan zerga-sistema berdearen oinarri oinarrian daudenak hain zuzen ere.

Era berean, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak hainbat epaitan aitortu du ingurumen-tributuen legezkotasuna, hots, betiere proportzionaltasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzen dituzten heinean. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) C-387/01 *Harald Weigel eta Ingrid Weigel auzian Finanzlandesdirektion für Vorarlbergen* aurka emandako 2004ko apirilaren 29ko epaiak ebatzi zuen Europar Batasuneko estatu kideek eskubidea dutela produktu energetikoen eta elektrizitatearen gaineko tributuak sartzeko, betiere printzipio horiek errespetatzen badira. Ildo horretan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 191. artikulua ezartzen du Europar Batasunaren ingurumen-politika printzipio hauetan oinarrituko dela: arreta, prebentzioa, zuzenketa eta "kutsatzen duenak ordaindu egiten du". Azken printzipio hori Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 53. artikuluan ere jasota

dago¹¹. Gai honen baitan Espainiak konpromiso berri bati ere ekin dio: "Fit for 55" estrategia 2021eko uztailaren 14an aurkeztu zuen Europako Batzordeak. Estrategia horren helburua da 2030erako gutxienez % 55 murriztea berotegi-efektuko gasen emisioak, 1990eko mailekin alderatuta, karbono gutxiko ekonomia baterako trantsizioa bultzatzeko eta Parisko Akordioan hartutako konpromisoak betetzeko¹².

Erkidegoko Zuzenbidetik haratago, argi dago ingurumen-tributazioa nazioarteko zuzenbide publikoaren ikuspegitik zeharo justifikatzen dela; ingurumen globala eta giza osasuna babestu behar direnaren lema, nazioarteko hainbat akordio eta itunetan gorpuztu izan baitute, hala nola, Kiotoko Protokoloak¹³ eta Parisko Akordioak¹⁴, non berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta berotze globala mugatzeko xedeak eta helburuak ezartzen diren. Gainera, Nazio Batuen Mundu Itunak enpresei ingurumenaren babesa eta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (UNFCCC, ingelesezko siglak) babesteko eta errespetatzeko deia egiten die. Dei zabal eta lausoa bada ere, zehazteko saiakerak egon dira azken urteetan, eskaera orokor horri gehituz enpresek eta gobernuek, eragileak diren heinean neurriak hartu beharko dituztela klima babesteko eta, bereziki, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko.

Tributu berdeen zergaz kanpoko funtzioaren azalpenari dagokionez, zergen helburu nagusia gastu publikoari aurre egiteko diru-sarrerak lortzea izan arren, bilketa-izaera horri eustez gain, beste helburu batzuk lortzeko balio dezaketela ekonomiaren arloan luzaro argia izan den premisa da, aurreko orrietan azaldu dugun bezala. Tributuen zergaz kanpoko eginkizuna ez dago, berariaz behintzat, Espainiako Konstituzioan, hala ere, modu zabalean garatu da

¹¹ Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea Espainiako lege bat da, eta Espainiako natura-ondarea eta biodibertsitatea babesteko eta kontserbatzeko esparru juridikoa ezartzen du. 53. artikuluan, "kutsatzen duenak ordaindu egiten du" printzipioa jasotzen da. Printzipio hori ingurumen-eremuan aplikatzen da, eta ezartzen du kutsatzaileak sortzen duten kutsaduraren kostuen erantzule direla. Printzipio hori funtsezko elementua da ingurumen-kutsaduraren aurkako borrokan, eta funtsezko tresna bihurtu da EBn eta Espainian ingurumen-erantzukizuna sustatzeko.

¹² Fit for 55 paketeak azpiegitura-mandatuak ditu, Adibidez, Europako Batzordeak karga- eta erregai-estazioen kopuruari eta gutxieneko edukierari buruzko helburu espezifikoak betetzeko eskatzen die estatu kideei, bateriazko ibilgailu arin eta astun elektrikoak, hibrido entxufagarriak, hidrogenozko eta gas natural likidotuzko ibilgailuak hartu ondoren.

¹³ Kiotoko Protokoloak berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko helburu kuantitatiboak ezartzen ditu herrialde industrializatuentzat, emisio-eskubideen merkatua sortuz eta energia garbiak sustatzeko neurriak aplikatuz.

¹⁴ Parisko Akordioak berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta klima-aldaketara egokitzeko esparru orokorra ezartzen du, helburu nazionalak aurkeztuz eta helburu horiek aldizka berrikusiz.

Konstituzio Auzitegiaren epaietan, eta gerora Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 2.1 artikulua onartu du. 1963an onartutako Espainiako Zerga Lege Orokorrak zerga horiek ezartzeko aukera ematen zuen, eta urteetan zehar eguneratu eta aldatu egin da, gizartearen behar aldakorretara egokitzeko.

Garrantzitsua da Konstituzio Auzitegiak ildo horretan ezarritako doktrina nabarmentzea: 1980ko hamarkadaren amaieran, 37/1987 Epaian, Konstituzio Auzitegiak aitortu zuen tributuen zergaz kanpoko helburuak gizarte- eta ekonomia-politikaren printzipio gidarietatik eratorritzen direla, bereziki, EKren 40. eta 130.1 artikuluetatik. Epai horrek esplizituki onartzen ez badu ere, helburu ekonomiko eta sozialak aipatzean ondoriozta daiteke zergaz kanpoko tributuen zuzeneko erreferentzia dela. Zerga estafiskalen diru-bilketarako aparteko helburua ez dago Konstituzioaren 31.1 artikuluan ezarritako gaitasun ekonomikoaren printzipioaren aurka, aitzitik, printzipio hori errespetatzeak ez du inolaz ere ez eragozten legegileak tributuen egiteko oinarria zergaz kanpoko kontsiderazioak kontuan hartuta eratzeko. Argudio horiek Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 7ko 186/1993 Epaian berretsi ziren.

Beraz, auzitegiak bat datoz legegilearekin tributuen egiteko oinarria zergaz kanpoko kontsiderazioak kontuan hartuta eratzeko hautuan, betiere Konstituzioak 31. artikuluan ezarritako gaitasun ekonomikoaren printzipioa errespetatzen den heinean. Konstituzio Auzitegiaren doktrinak, ildo horretatik, tributuko politika baterako oinarriak ezartzen ditu, eta politika horrek, diru-sarrera publikoen bilketa bermatzeaz gain, errentaren eta gizarte-ongizatearen banaketa bidezkoagoa ere sustatuko du.

I. IBILGAILUA ZERGA SISTEMA OROKORREAN

Ibilgailu motordunak diru-iturri ezinbestekoak dira Ogasun Publikoko, Estatuko eta Europako erakundeentzat. Ibilgailuen erabilerari eta edukitzeari aplikatutako tributuko figuren multzoak zuzeneko eta zeharkako tributukoak barne hartzen ditu, eta, besteak beste, ondare-ondasun horien erosketa, titulartasuna, matrikulazioa eta zirkulazioa grabatzen ditu (Trigueros Martin, 2013). Espainian, zergen bidez grabatzen da ibilgailu bat erostea eta baita eskualdatzea ere. Honen matrikulatzea, erabiltzea, errenta ordaintzeko ematea, errentamendua, ibilgailua erabiltzeak eragin ditzakeen arriskuak estaliko dituen aseguruak kontratatzea eta hidrokarburoak kontsumitzea, behinik-behin, egintza grabatuak dira. Azken

batean, autoak, ondare-ondasun edo kontsumo-ondasun gisa, unean uneko premien arabera zerbitzatu daitezkeen kotizaziopeko gaitasun guztiak eskaintzen ditu, fiskoaren aurrean.

Atal honetan ibilgailu motordunei aplika dakizkiekeen zerga-figuren azterketa labur bat egitea eta tributu berde gisa zeintzuk sailkatzen diren aztertzea proposatzen dugu. Horretarako, lehenik eta behin, Espainiako tributu-sistemaren ikuspegi orokorra emango duen eskema bat ezarriko dugu, jabetza pribatuko ibilgailuei dagokienez. Azterketa honetan bi kategoria erabiliko dira sailkatzeko. Lehenik eta behin, ibilgailua edukitzea grabatzen duten zergak kokatzen ditugu, hots, zirkulazio-zerga eta matrikulazio-zerga. Bigarrenik, ibilgailuaren erabilerari aplikatu beharreko tributuak sailkatzen ditugu. Azken horiek bi taldetan bana daitezke: batetik, erregaiei ezarritako tributuak; bestetik, espazio publikoak erabiltzeagatik biltzen diren tasak, hala nola bide publikoan aparkatzeagatik, autobideetan zirkulatzegatik edo hirigune jakin batzuetara sartzeagatik. Gainera, aipamen berezia egingo diogu Kataluniako Generalitateak CO₂ isuriei ezarri dion zergari.

Argitu behar dugu ez dugula jorratuko bigarren eskuko ibilgailuen salerosketaren arloa, ezta ibilgailuak edukitzeak Ondarearen Gaineko Zergari eta Pertsona Fisikoen Errenten gaineko Zergari nola eragiten dien ere. Gaia mugatzeko ahaleginetan erabaki dugu tributazioaren arlo hauek ez dutela ondorio ekologikoekiko harreman zeharo zuzenik, eta beraz tributazio ekologikoaren muinean kokatzen diren tributuak izango dira gure azterlan.

1. Edukitzaren gaineko zergak

Espanian, ibilgailuen tributaziotik eratorritako bilketaren %60a edukitzaren zergek osatzen dute (Gob, 2022). Argi dago, beraz, zerga hauek funtsezko zeregina dutela diru-sarrera fiskalak sortzeko eta automobilgintzaren sektorea arautzeko. Edukitzaren gaineko bi zerga nagusi bereiz ditzakegu: Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia eta Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

a. Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia

Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia (ZGZB) laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran integratu zen Espainiako zerga-sisteman, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen bidez. Araudi horrek hainbat zerga bereziren aplikazioa duten arauak ezartzen ditu, legedi honi dagokio, hain zuzen ere, ZGZBa, Matrikulazio Zerga izenez ere ezagutzen dena, zuzenbidearen arlotik haratago. Zerga berri honen justifikazioa garapen

iraunkorra eta ingurumenaren babesa sustatzeko mekanismo juridiko-tributarioen beharra izan zen.
Ibilgailu baten matrikulazioari buruzko fiskalitatea eskala handian aplikatzen da Europan³⁰, Azken urteetan eman den aurrerapausu nabariena jabetzaren gaineko zergen kutsu ekologikoaren azkunda da: ikusi dugu nola Ibilgailuen jabetzaren gaineko zergak gero eta gehiago bereizten diren ibilgailuen CO₂ isurien indizearen arabera³¹. Praktika horrek erosketa-erabakiei eragiten die CO₂ tona bakoitzeko zerga-tasa inplizitu bihurtuz (Braathen, 2009). Europako herrialdeei erreparatuz, hauen arteko aldea irudikatzeko Danimarka, Norvegia Frantziaren kasuak aztertuko ditugu:

Danimarkako automobilaren fiskalitateak tradizio luzea du, matrikulazio zerga 1925ean sartu baitzen, ibilgailuen inportazioa murrizteko eta balantza komertziala eta Danimarkako moneta indartzeko asmoz. Danimarkako automobilaren gaineko zerga nagusia autoren balioan oinarritzen da eta progresiboa da, eta horrek bereziki garestitzen ditu auto handiak eta luxuzkoak. Ez da arraroa zergak ibilgailu baten publikoarentzako salmenta-balioaren bi heren izatea. Azken urteotan, matrikulazio-zerga gehiago bereizi da ibilgailuen klima- eta ingurumen-ezaugarrien arabera. 2015. urtera arte, bateriazko ibilgailu elektrikoak (BEV)

³⁰ Ibilgailuen salmenten gaineko zergek zerga-pakete eraginkor batean papera bete dezaketen heinean, kontuan hartu beharreko zerga-diseinuko arazoak daude. Ibilgailuak emisio-tarte desberdinetan sailkatzeko eta emisio baxuenen sailkapenei zerga-tasa baxuagoak aplikatzeko ohiko planteamendua problematikoa da, gutxienez bi alderditan. Lehenik eta behin, tentsioa sortzen du zerga-helburuen eta ingurumen-helburuen artean, hau da, zenbat eta arrakasta handiagoa izan jendea emisio txikiagoko ibilgailuetara aldatzeko politikak, orduan eta diru-sarrera gutxiago biltzen dira. Bigarrenik, emisioak murrizteko pizgarri uniformeak eskaintzearen printzipioa urratzen du, eta, horren ordez, ibilgailuen eskariaren kontzentrazioa sor dezake, hain zuzen ere, zerga-tarteen azpitik, banda baten barruko emisio-murrizketa berrientzako sari nulu batekin (OECD, 2009).

³¹ CO₂ isuriak turismoak erosteko/matrikulatzeko zerga maizago bereizten duen parametroa dira: 28. EBko erregimenen % 55 inguru autoaren CO₂ isurietan oinarritzen dira (neurri batean). CO₂ isurketez gain, turismoen matrikulazio-zergaren araubideak sarritan bereizten dira erregai motaren (ia % 40), erosketa- edo katalogo-prezioaren (% 35 inguru) eta motorraren tamainaren (% 45) arabera. Motozikleten eta industria-ibilgailu arinen kasuan ere, CO₂ isuriak parametro garrantzitsuak dira, baina ez turismoetan bezainbeste. Ibilgailuaren pisua (% 60 inguru) da ibilgailu industrial arinen fiskaliterako diferentzia-parametrorik garrantzitsuena. Motorren fiskalitatea motorraren tamainaren arabera bereizten da batez ere (% 50 inguru) (Delft, C. E., 2019).

matrikulazio-zerga ez zen beste ibilgailuekiko bereizten; 2016an, lehen pausua heman zuten tributuaren ekologizazioaren bidean, aplikatzen zitzaizen zerga jaitsi zutenean. 2020ean Danimarkako Parlamentuak salbuespen bat ezarri zuen, oraindik martxan dagoen priektu baten barnean, *de facto*, 400 000 DKK 1 Eur 54 000 baino gehiagoko kostua ez duten zero emisioko autoentzat. Egun, ibilgailu hauek ez dute matrikulazio zergarik ordaindu behar. (Østli, et al., 2022).

Ipar-europa automobil industriaren ekologizazioan aitzindari izan da: Norvegiar ere autoen matrikulazioarekin lotutako zerga-sistemak egitura ganbila eta CO₂ ixurien araberako eskala du. Dinamarkan ez bezala, ez da balioan oinarritutako zergarik ezartzen. Hala ere, BEZaz gain, salbuespen eta onura anitz ezarri zituzte, bereziki bateriazko ibilgailu elektrikoentzat. Norvegiak ez die eskudirutan dirulaguntza zuzenik eskaintzen automobilaren erosleei. Horren ordez, ibilgailu elektrikoaren erabilera sustatzeko eta garraioaren ingurumen-inpaktua murrizteko pizgarri eta zerga-salbuespen zabalak azpimarratzen dira. Norvegiako ibilgailu motordunen gaineko zerga-sistema eta zero emisioko ibilgailuentzako pizgarriak oso zorrotzak dira autoen CO₂ isurien gehiengoari dagokionez, Espainian “emisio baxuako ibilgailu” deitzen ditugun ibilgailu asko Norvegiar ez lirateke hala kategorizatuko. Pizgarri garrantzitsu hauen presentziak eta estandare zorrotz hauek Eskandinaviako eta Europa osoko zero emisioko autoen merkatu handienetarikoa bat garatu dute. (Østli, et al., 2022).

Frantzian 2008ko urtarrilean sartu zen indarrean *bonus-malus* ekologikoa: sistema honen bidez emisio txikiko ibilgailuen lehen matrikulazioan laguntza bat ematen da eta aitzitik Emisio altuko ibilgailuei zigorra zerga gehigarri bat ezartzen zaie. Frantziaren kasu konkretuan kilometro bakoitzeko 120g CO₂ baino gehiago isurtzen duten ibilgailuen lehen matrikulazioari aplikatzen zaio zigor hau; hots, ez da ez zigor makala, zenbatekoa 50 eta 10.500 euro artekoa da (Delcourt, S., Perrot, É., & Binois, É, 2021).

Europatik haratago, Kalifornia eta Missouri estatu estatubatuarretan eta Columbia Britaniar Kanadako probintzian, ibilgailu kategoria guztiei aplikatzen zaizkie erosketa/matrikulazio zergak, baina estatu gutxi batzuk bakarrik ezarri dute kutsaduraren araberako eskala bat. Azkenik, Japonian motozikletek baino ez dute matrikulazio-zergarik, hala ere, Japoniak nolabait zirkulazio zergaren zabal baten bidez barnebiltzen ditu matrikulazio zerga eta zirkulazio zerga (Delft, C. E., 2019).

b. Zirkulazio zerga

Europar Batasuneko herrialde guztiek aplikatzen dituzte nolabaiteko zirkulazio-zergak, baina alde handia dago ibilgailuen kategorien arabera zergen aplikazio-mailan. Herrialde gehien-gehienek turismoak eta motozikletak zergapetzen dituzten arren, badira salbuespen batzuk: Estonian, Lituanian eta Polonian ez da zergapetzen turismoen jabetza, eta hiru herrialde horietan eta Finlandian, Frantzia eta Txekiar Errepublikan motorrak honelako zergak ordaintzetik baztertuta daude. Azkenik, Txekiar Errepublikan eta Eslovakian jabetzaren gaineko zerga bat soilik aplikatzen zaie helburu profesionalekin erabilitako ibilgailuei (Delft, C. E., 2019). Ipar europako herrialdeen sistemei erreparatu diegu, bai Finlandia, eta baita Suedia ere. Belgika eta Herbeheretako zirkulazio zerga ere deigarria da.

Finlandia adibide nabarmena da, bertan *Ajone Vivero* izeneko zirkulazio-zerga bat ezartzen baita. Zerga hori bi osagai nagusiren inguruan egituratzen da: oinarrizko zerga eta propulsiio-zerga. Oinarrizko zerga ibilgailuen CO₂ isurien arabera kalkulatzen da, ibilgailu eraginkorragoak eskuratzeko asmoz, emisioei dagokienez. Bestalde, propulsiio-zergak erabilitako erregai-tasa hartzen du kontuan, eta gasolina erabiltzen duten ibilgailuak karga horretatik salbuesten ditu. Faktoreen konbinazio horren bidez, karbono isuri txikiko ibilgailuak herrialdean har daitezela sustatu nahi da.

Alemanian, bestalde, zirkulazio-zerga automobilen CO₂ igorpenetan oinarritzen da. 2009az geroztik, sistema bat ezarri da, Finlandiaren kasuan bezalaxe funtsezko bi alderdi kontuan hartzen dituen. Ibilgailuaren propulsiio ahalmenaren eta emisioen arabera eskala bat osatu dute. Propulsiio-osagaia gasolinazko eta dieselezko ibilgailuei aplikatzen zaie, eta emisio-osagaia, berriz, aurrez ezarritako atalase batetik aurrera aktibatzen da, gehigarri bat ezarriuz emisio altuko ibilgailuei. 2016 eta 2020 artean matrikulatutako ibilgailu elektrikoak zirkulazio zerga ordaintzetik salbuetsita daude, ingurumena gehiago errespetatzen duen mugikortasunerako trantsizioa sustatzeko helburuarekin bideratu zen kanpaina baten ondorioz.(Fronde, M., & Vance, C.,2018).

Belgikan, aurretiaz aipatutako herrialdeetan bezalaxe, urteko zirkulazio-zergaz gain, zerga osagarri bat eskatzen zaie petroleotik eratorritako hidrokarburoak erabiltzen dituzten ibilgailuei. Karga hori ibilgailuaren motorren potentziaren arabera kalkulatzen da eta hare

gehiago handitzen da gasoleoa erabiltzen duten ibilgailuen potentzia kalkulatzeko. Neurri horrek ibilgailu elektrikoak erabilera sustatzen ditu. (Aydin, M., & Bozatli, O., 2022).

Suedian ez da erosteko- edo matrikulazio-zerga bakarrik aplikatzen 1996az geroztik, zirkulazio zerga handituz eta honi garrantzia gehiago emanez. Zirkulazio zergak ibilgailuaren pisua eta CO₂ emisioak kontuan hartzen ditu. Era berean, ingurumeneko dirulaguntza berezi bat ezarri da, "super milebilspremie" izenekoa, zero edo emisio txikiko ibilgailuak erostea sustatzeko, pizgarri sistema zabala jardun dute. 2018tik aurrera, *bonus-malus* sistema bat ezarri da; hots, sistema horrek subsidioak ematen dizkie emisio txikiko ibilgailuei, eta zerga gehigarri bat aplikatzen die jabetzako lehen urteetan CO₂ kantitate handienak sortzen dituztenei. (Alola, A. A., & Nwulu, N., 2022).

Azkenik, Herbehereetan, zirkulazio-zergak bilakaera sakona izan du denboran zehar, ibilgailuaren prezioan oinarritutako sistema guztiz ekologizatuz eta energia-eraginkortasunaren arloko aurrerapenetara egokituz. Azken urteetan, kutsu hau indartzeko CO₂ isurketetan oinarritutako salbuespen-atalasea pixkanaka murriztu da, 2010ean 110gCO₂/km izatetik 2016an 50gCO₂/km izatera igaro baita. Horrek esan nahi du ibilgailu elektriko eta hibrido konektagarriak zergen salbuespenerako hautagarriak direla, herrialdean ibilgailu garbiagoak har daitezkeen sustatzeko (Aydin, M., & Bozatli, O., 2022).

2. Erabilerarako beharrezkoak diren produktuen gaineko zergak

Europar, garraioaren gaineko zergak ibilgailuen gaineko zergak izan dira batez ere, eta, bereziki, erregaiaren gainekoak. Zerga horiek munduko beste leku gehienetan baino handiagoak izaten dira, eta diru-sarrerek aurrekontu orokorra handitu ohi dute, helburu zehatzetarako erabili beharrean³². Herrialde guztietan aplikatzen dira erregaien gaineko zergak, eta kategoriari dagokionez Espainiaren antzera zerga bereziak izan oi dira. Batzuetan (Danimarka, Eslovenia, Finlandia, Frantzia, Irlanda, Luxenburgo, Portugal eta Suedia) karbonoaren edo CO₂aren gaineko zerga espezifikoak aplikatzen zaizkio errepideko garraioari, erregaiaren eta elektrizitatearen gaineko zerga berezien zati gisa. Alde Handia dago aplikatutako zerga-tasetei dagokionez: altuenak Herbehereetan aplikatzen dira, litroko

³² Karbonoaren tarifikazioari buruz dagoen ikerketak plazaratu egin du karbonoaren tarifikazioa emisioak murrizteko neurri errentagarriena dela babesten duten azterketa teorikoen inguruan (Kojima, S., & Asakawa, K., 2021).

0,78 euro eta zerga-mailarik txikiena Poloniak eta Bulgariak dute, litroko 0,36 euro (Delft, C. E., 2019).

Amerikako Estatu Batuei dagokionez gasolinaren gaineko AEBetako zerga federalak, jatorriz 1932ko Diru Sarreren Legearen ondorioz ezarri izen, obra publiko orokorrak eta gerra garaiko defentsaren gehikuntza finantziatzeko helburuarekin (Gov, 2023). Ameriketako Estatu Batuetako gasolinaren gaineko zerga federala galoiko 18,4 zentimokoa da gasolinarentzat eta galoiko 24,4 zentimokoa gasolioarentzat. Tasa horiek aldaketarik gabe mantendu dira 1993tik, Europako herrialdeekin alderatuz panorama zeharo ezberdina. Estatu bakoitzak federalari zerga gehigarriak ezartzeko ahalmena du, eta horrek gasolinaren gaineko zerga-tasa desberdinak sortzen ditu herrialde osoan zehar. Gasolinaren gaineko estatu-zergek gorabera handiak dituzte: zentimo gutxi batzuetatik hasi eta galoiko bakoitzeko 50 zentimo baino gehiagora arte. Adibidez, 2021ko erreformatik aurrera, Pennsylvaniak gasolinaren gaineko estatu-zerga altuenetako bat du: 58,7 zentimo galoiko bakoitzeko. Alaskako biztanleek berriz, 14,65 zentimo soilik ordaindu behar dute galoiko bakoitzeko, zergetan (American Petroleum Institute 2021).

Auto eta ibilgailuen erabilerarako beharrezkoak diren produktuak zergapetzeaz gain, ibilgailuen erabilera bera zergapetzeko beste bide bat egon badago; hots, kilometroen arabeko zerga. Honelako bi proiektu nagusi proposatu dira nazioartean: Herbeereetan eta Oregonen, Amerikako Estatu Batuetan.

2009an Herbehereetako Gobernuak ibilgailu pribatuen gaineko zergak erreformatzeko proposamen erradikala aurkeztu zuen, sistema tradizionalaren ordez "kilometroen gaineko" zerga berria ezarriz. Ibilgailuen jabeek GPS gailuak jarri behar zituzten autoetan, agintari fiskalek posizionamendu-datuak eta denbora erabil zituzten, tasak hileroko ordaintzeko. Helburua zen zerga berriak %15erainoko murrizketak ahalbidetzea egindako kilometro kopuruan. Aplikazio horrek, ordea, ezin izan zuen zailtasun larririk gainditu. Erreforma indarrean sartzea, 2010erako aurreikusia, 2011ra arte atzeratu behar izan zen, oposizio sozialaren ondorioz, eta, ondoren, aldi baterako utzi zen. Ibilgailuetan lokalizazio-gailuak instalatzearen kostuak, pribatutasunaren eta datuen babesaren inguruan sortzen zituen arazoak eta zergak ekitateari dagokionez duen eragina izan ziren oposiziogileen argudio nagusiak. Holandarren ereduari jarraituz, Belgikak eta Luxenburgok sistema elkarrekin

adosteko negoziazioak hasi zituzten, baina proiektuari uko egin behar izan zioten Holandak erreforma bertan behera utzi zuenean. (Meurs, H., Haaijer, R., & Geurs, K. T., 2013).

2001ean, erregaiaren gaineko zergaren diru-sarrerek behera egin zutenean, Oregon estatuko gobernuak alternatiba fiskal berriak bilatzen hasi zen. Aztertutako aukeretatik, erabaki zuen "milia bakoitzeko" ordainketa bat izango zela erregaiaren gaineko zergaren alternatiba bidezkoena, eta, beraz, bi programa pilotu ezarri zituen. 2015ean, Oregon programa jarri zuen martxan, borondatezkoa eta hasiera batean 5.000 ibilgailura mugatuta. Programa horretan, parte-hartzaileek gailu bat jarri behar dute ibilgailuan, egindako distantziak erregistratzeko. Aplikatutako zerga 1,7 zentimokoa da kilometroko, eta gidariak gasolindegietan ordaintzen dute. Estatuak sistema zabaldu nahi du, eta nahitaezkoa bihurtu ibilgailu berri guztientzat 2026tik aurrera. Funts federal berriak erabiliko dira aukera teknologikoak zabaltzeko, kudeaketa eta barne-izapidetzea hobetzeko eta onarpen publikoa indartzeko. Ekimen honek Estatu Batuetako beste estatu batzuk ere eraman ditu, Kalifornia, Washington edo Minnesota kasu, antzeko alternatibak aztertzerako programa pilotuen garapenaren bidez (Witty, J. 2006).

3. Erabileraren gaineko tasak eta zergaz kanpoko ondare-prestazioak

Atal honetan tributu figura anitz jorratuko ditugu eta beraz beharreakoa da lehenik eta behin gure sailkapena zer legediaren arabera egingo dugun zehaztea. Espainian burutzen den tasa zerga eta zergaz kanpoko ondare-prestazioen sailkapena ez da guztiz aproposa beste herrialde hauetan ematen diren legegintza sailkatzeko eta beraz, herrialde horietan bertan ezartzen zaien kategoriaren arabera bereiztuko ditugu. Londresen aplikatutako aparkatze-tasa adibide gisa hartuta, nahiz eta "fee" hitza zuzenean "tasa" gisa itzultzen den Erresuma Batuan, kontuan hartu behar da definizioak ez duela espainiar tasen definizio berbera.

a. Bidesariak

Salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunen bide-tarifak Europar Batasunak arautzen ditu 1999/62/EE Zuzentarauaren bidez (Euroviñeta Zuzentaraua). Euroviñeta Zuzentarauak bermatzen du estatu kideek ez dituztela erabiltzen salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunetarako errepideak

erabiltzeagatiko tasak, beste estatu kide batzuen lehia zigortzeko³³ (Rumscheidt, S., 2014). Hori ez zaie ibilgailu pribatuei aplikatzen, eta horrek esan nahi du subsidiariotasun-printzipioak baimena ematen diela estatu kideei tarifa eta fiskalitate politika propioak ezartzeko. Europako herrialde gehienetan, egindako distantzian oinarritutako bidesarien eta bineten sistema bat ezarri da; 2016an, lau herrialdek soilik (Zipre, Estonia, Finlandia eta Malta) ez zuten mota horretako sistemarik (Delft, C. E., 2019). Austria eta Portugal aitzindariak izan dira bidesari elektronikoen gaian. Azken urtetan, hesi fisikorik gabeko bidesai sistemak Europan zehar hedatzen hasi dira, Portugal eta Austria honen aitzindari izanik.

Portugalgo autobideen azpiegiturak Espainian ditugunekin alderatuta zeharo ezberdinak dira. Finantzaketa-eredua beste herrialde batzuetan aplikatzen den berbera izanda ere, hesi fisikoak ezarri beharrean bidesari elektronikoko bidezko errepideak gailendu dira. Hasiera batean bidesari elektronikoko haek Portugalen matrikulatutako ibilgailuei bakarrik aplikatzen zitzaizkien, baina Portugalek duen turismo industria hazi den eanean geroz eta proposamen gehiago daude kanpotarrak ere sistema jarraitzera behartzeko. Zenbait errepidetan bidesari tradizionalak mantendu badituzte ere, helburua bidesari elektronikoen sarea zabaltzea da (Saldaña Alegre, et al., 2012).

Bestalde, Austriako bidesarien sistema, "Vignette" izenez ezagutzen dena ibilgailuek daramaten gometsen bidez fiskaltzen den sistema ibilgailua da. *Vignette* etiketa itsasgarria da, eta ibilgailuaren haizetakoan jartzen da. *Vignette* mota desberdinak daude iraupenaren arabera: 10 egun, 2 hilabete eta urte 1. Gidariek *Vignettea* erosi behar dute bidesaripeko errepide-sarean sartu aurretik. *Vignettearen* prezioa aldatu egiten da ibilgailu motaren eta iraupenaren arabera. Adibidez, automobiletarako *Vignette* baten urteko kostua eta motozikletetarako *Vignette* arautegia desberdinak dira (Saldaña Alegre, et al., 2012).

³³ EB osoan bide-tarifen erregimen bat sortzeko ezarri zen, ibilgailu astunei mugetan zehar jarduteko aukera emango ziena. Zuzentarauak baimena ematen die (baina ez du behartzen) EBko estatu kideei 12 tonatik gorako ibilgailuentzako denboran edo distantzian oinarritutako errepidea erabiltzeagatik kargak ezartzeko. 2006/38 Zuzentarauak bide-tarifen aplikazio-eremua zabaldu zuen, 3,5 tonatik gorako ibilgailu komertzialak sartzeko. Ibilgailu pribatu arinentzat, berriz, ez dago horrelako zuzentzarurik. Izan ere, salgaien zirkulazioak lotura zuzena du EBren helburu eta oinarritzko printzipioekin: merkataritza askea eta salgaien zirkulazio askea estatu kideen artean.

b. Hiri-bidesariak

Nazio Batuen Erakundearen arabera, hiriek luraren azaleraren % 3 soilik hartzen badute ere, munduko populazioaren erdia baino gehiago hartzen dute, baina energia-kontsumoaren % 70aren eta karbono-isurien % 75aren erantzule dira (United Nations, Department of Economic and Social Affairs, Population Division, 2018). Hori guztia 50eko hamarkadaz geroztik egiaztatutako urbanizazio masiboaren ondorioa da, eta datozen hamarkadetan jarraitzea espero da. Berebiziko garrantzia izango du, beraz, egungo hirien kudeaketak eta etorkizuneko plangintzak, eta horretan ere nabarmendu ziren Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak, batez ere 11. Helburuan (Hiri eta komunitate jasangarriak).

Hiriko bide-tarifazioa ELGAko zenbait herrialdek hiri jasangarriagoak kudeatzeko aukeratu duten bideetako bat da. Trafikoa kontrolatzeko eta kutsadura murrizteko estrategia bat da, eta Europako hirietan oso zabal aplikatzen da; besteak beste, Londres, Stockholm, Palermo, La Valeta eta Oslo hirietan (Delft, C. E., 2019). Londresen, adibidez, 2003an hiriko bide-tarifen sistema bat ezarri zen, "itomen-zona" izeneko, eta bertan tasa finko bat aplikatzen da bidesari-eremu horretan sartzean. Ekimen horrek emaitza positiboak lortu ditu, hiriguneko trafiko-fluxua eta kutsadura murriztu baitira (Litman, T., 2005).

Palermon eta Stockholmen, bestalde, denboraren arabera bereizitako hiri-bidesariak ezarri dira. Palermon, gidariak eguneko orduaren eta asteko egunaren arabera aldatzen den bidesaria ordaindu behar dute (Campisi, et al., 2020). Stockholmen, ordukako bidesaria ezartzen da, eta handiagoa da puntako orduetan (Gullberg, A., et al., 2009). Valetak, Maltako hiriburuak, beste ikuspegi bat aukeratu du, non hiri barruko bideen tasak egonaldiaren iraupenaren arabekoak diren. Gidariak tarifa bat baino gehiago aukeratu ahal izango dute, ordainlekuan ematen duten denboraren arabera (Attard, M. & Ison, S. G., 2010). Azkenik, Oslon erabilitako erregai motaren eta sarrera-orduaren arabera aldatzen diren hiri-bidesariak ezarri dira: Geroz eta erregai kutsatzileagoa erabili, orduan eta prezio altuagoa ordaindu behar. Gainera, puntako orduetan tarifa are altuagoak aplikatzen dira, pilaketa handieneko uneetan zirkulazioa despizteko (Ruggieri, R., et al., 2021).

c. Aparkalekua

Aparkalekuaren kudeaketa efizienteak funtsezko zeregina du mugikortasun jasangarria sustatzeko eta hiri-garraioko arazoak konpontzeko. Aparkatzeko eskaria igotzean zirkulatzen

dabiltzan ibilgailu kopurua ere igoko da. Shoup-en ikerketek (2005) erakutsi dute aparkaleku-politikak oso eraginkorrak izan daitezkeela bizitegi- eta merkataritza-eremuen dentsitatea kudeatzean, eta hiriaren hedapenean eta automobilarekiko mendekotasunari aurre egiteko tresna modura. Aparkaleku-eskarian eragin handia du tarifazioak, aparkatzeko eskari-ereduei buruzko hainbat azterlanetan nabarmentzen den bezala (Hensher eta King, 2001). Gainera, aparkalekuen prezio baxuak edo nuluak errepide bidezko garraioaren gutxiespenaren iturri garrantzitsu bat dira, askotan, batez ere hiriko gidaritzan. Hori gutxi balitz, zonakatzearekin eta eraikuntzarekin lotutako araudiek aparkaleku-eskaintza zabalagoa ekarri ohi dute, hain araututa ez dauden merkatuetan eskainiko litzatekeena baino, eta horrek are gehiago laguntzen du hiriko joan-etorrien kostu txikietan eta beraz garraio pribatuaren erabilerearen hazkundera.

Aparkalekuaren tarifazioa eta eskaintzaren murrizketak autoaren erabilera mugatzeko metodo eraginkorrak dira: gidariak zenbait kosturi aurre egin behar diete, bada aparkatzeko denbora eta gastatutako dirua, honek kotxez bidaiatzeren aukera ez autatzera edo gutxiago autatzera bideratzen ditu (Hensher eta King, 2001). Tarifazioaren eraginkortasunaren adibide esanguratsu bat, Hong Kong-hirian bideratutako programa da: han aparkaleku kopuru txikia egoteaz gain tarifak adimenduak dira³⁴ eta zeharo altuak. Honen ondorioz, eta garraio publiko sistema eraginkor bateri gehituta, egun bidaiarien % 7k bakarrik aukeratzen dute auto pribatua bidaiatzea (Wu, F., & Ma, W., 2022). Aparkaleku tasak era eraginkorrean aplikatu dituzten beste hiri batzuk Londres, San Frantzisko, Rotterdam eta Amsterdam dira.

Londresek aurreapausu esanguratsua eman du lantokietako aparkalekua zergapetuz, plan hau enplegatzaile nagusiei zuzenduta dago, lantokian 10 aparkaleku-plaza baino gehiago baitituzte hiriaren mugen barruan. Aparkaleku-plaza bakoitzeko tasa bat ezartzean, enplegatzaileei pizgarria ematen zaie autoaren erabilera minimiza dezaten eta langileen artean garraio-aukera alternatiboak susta ditzaten (Dale et al. 2019). Sortutako diru-sarrerak garraio-ekimenak finantzatzeko erabiltzen dira, hala nola tranbia-lineen sarea zabaltzeko.

³⁴ 2021/2022an, Octopusen oinarritutako parkimetroek ia 20 urte daramatzatenez zerbitzuan, parkimetro berriak jarri dira iraupen laburreko kaleko aparkalekuen eskari publikoari erantzuteko. Aurrekoekin alderatuta, parkimetro berriek hainbat hobekuntza dituzte. Parkimetro berriak uhin milimetrikos osatutako radar bat erabiltzen du bi aparkalekuren okupazioa antzemateko aldi berean (bata eskuinaldean eta bestea ezkerrean), eta denbora errealeko informazioa eskaintzen dio publikoari. Aparkaleku adimenduna sustatzeko, "HKMeter" izeneko plataforma aintzeko aplikazio bat garatu zen, gidariei aparkatzeko denbora erostea, aparkatzeko denbora luzatzea, parkimetro erabilgarriak bilatzea eta aparkalekuetara nabigatzea errazten diona. (Wu, F., & Ma, W., 2022)

Londresko planteamendu gardenak kontsulta publikoko prozesu bat barne hartu zuen, alderdi interesdunen ekarpen baliotsuak jasotzeko.

San Frantziskok bere baitan “dynamic pricing” sistema biribildu du: SFpark deituriko tarifakazio dinamikoko sistemak, nabarmentzen duenez, aparkatzeko tarifen ikuspegi berritzailea erakusten du (Pierce, G., & Shoup, D., 2013). Teknologia adimenduna aplikatuz, programa honek aparkalekuaren prezioak eskariaren eta eskuragarritasunaren arabera doitzen ditu momentuoro³⁵. Sistemak sentsoreak erabiltzen ditu aparkalekuaren okupazioa kontrolatzeko, eta prezioak dinamikoki doitzen ditu eskaria kudeatzeko. Gainera, SFpark-ek erabilgarri dauden aparkaleku-plazei buruzko informazioa ematen die erabiltzaileei, aplikazio mugikorren bidez. Horrek erraztu egiten die gidariei aparkalekua aurkitzea, eta murriztu egiten du plaza libreen bilaketak eragindako trafiko-pilaketa.

Rotterdam eta Amsterdam aipatzea guztiz beharrezkoa da aparkaleku politikei erreferentzia egitean, azken batean, Herbehereak aitzindariak izan dira aparkaleku-sistema berritzaileetan³⁶. Bizikleten erabilera sustatzeko 90.hamarkadatik jada errepideen ondoan kokatu oi diren aparkalekuak bidegorriekin ordeztzen hasi ziren. Egun Rotterdamek eta Amsterdamek tarifa adimenduak ezarri dituzte aparkalekuen erabilera optimizatzeko. Tarifak eskariaren arabera doitzean eta prezioak zonen eta orduen arabera aldatzean, hiri horiek autopilaketa gutxiagoko eremuetan eta haraneko orduetan aparkatzea sustatzen dute. Estrategia horrek aparkaleku-plazen erabilera eraginkorra sustatzen du eta garraio jasangarriaren aukerak sustatzen ditu, bereziki bizikleta erabiltzearen pizgarriak ezarriz (Cooper, C. J., 2018).

³⁵ Ezarpenaren ondoren, SFparkek 0,25 \$/ orduko igo zituen blokearen prezioak okupazio-tasa % 80tik gorakoa bazen, 0,25 \$/ orduko jaitsi zituen okupazio-tasa % 60 eta % 80 artekoa bazen, eta 0,50 \$/ orduko jaitsi zituen okupazio-tasa % 60tik beherakoa bazen. Gainera, SFparkek bide publikotik kanpo aparkatzeko prezioak ere doitu zituen (hiriak kudeatutako aparkalekuak), antzeko arauak erabiliz.2 Azkenik, SFparkek muga bat ezarri zuen goiko eta beheko muga bat orduko tarifarako: tarifa ezin zen 6 dolar/orduko baino handiagoa izan, ezta 0,25 dolar/orduko baino txikiagoa ere (Feldman, P., Li, J., & Tsai, H. T., 2022).

³⁶ Herbehereetan, Schipholgo (Amsterdam) aireportua izan zen parkimetroak agertu ziren lehenengo tokia. Amsterdam izan zen ordainpeko aparkalekua sartu zuen Herbehereetako lehen hiria, eta 500 parkimetro jarri zituen 1964an (CROW 2012). 2014an, Herbeheretako 155 udalerrik zuten ordainpeko aparkalekuren bat, eta 1989an, berriz, 126k; ordainpeko aparkalekua gaur egun aktibo dago 100.000 biztanletik gorako hiri guztietan eta 20.000 eta 50.000 biztanle arteko hirien herenean. (Centraal Bureau voor de Statistiek., 2014)

4. Espainiarekin alderaketa:

Espainiako ingurumen- eta energia-tributuek guztizko diru-sarrera publikoei edo Barne Produktu Gordinari (BPG) dagokienez duten garrantzia Europar Batasuneko beste herrialde batzuetakoaren atzetik dago. ELGAko EBko herrialdeen batezbestekoarekin alderatuta, Espainian bizitegi- eta industria-erabilerako produktu energetikoak zergapetzen dituzten tributuek partaidetza nabarmen txikiagoa dute azken prezioetan (OECD, 2021). Horrek adierazten du desberdintasunak daudela Espainiako zerga-sistemaren eraginkortasunean, ingurumen-helburuak sustatzeko eta funtsezko diru-sarrerak sortzeko. Garraioaren gaineko tributuen eremu espezifikoa aztertzean, egoera are gehiago areagotzen da. Espainian, garraioaren gaineko tributuek sortutako diru-sarrerak Europako beste herrialde batzuetakoak baino nabarmen txikiagoak dira. Duela gutxiko datuen arabera, Espainiako *per capita* garraioaren gaineko tributuen ondoriozko diru-sarrerak 120 euro dira, eta Europako batez bestekoa, berriz, 250 euro *per capita* (Eurostat, 2022).

Alemanian, aldagai berdinak kontuan izanik, *per capita* diru-sarrerak 300 eurora iristen dira, Espainiako zifra nabarmen gaindituz. Suedian eta Herbehereetan, esaterako, garraioaren gaineko ingurumen-tributuengatik bilketa 400 euro eta 350 euro *per capita* da, hurrenez hurren. Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan ere, hala nola Norvegian, biztanle bakoitzeko bilketa 600 eurora iristen da, eta are gehiago nabarmentzen da Espainiarekiko arrakala (Eurostat, 2022). Gainera, mundu mailako alderaketa zabalduz gero, Japoniak eta Hego Koreak, besteak beste, diru-sarrera *per capita* handiagoak dituzte garraioaren gaineko ingurumen-tributuengatik, 500 eurotik gorakoak. Espainiakoaren antzeko ekonomiak dituzten ELGAko herrialdeetan ere, hala nola Italian eta Portugalen, tributu horiengatik *per capita* bilketa 200 euro eta 180 eurora iristen da, hurrenez hurren (OECD, 2021).

Panorama orokorrari erreparatu ondoren, Hidrokarburoen gaineko Zergari buruzko aipamen berezia egin behar da, garrantzitsua baita azpimarratzea Espainian alde handia dagoela inguruko herrialdeekin alderatuta. 2020an, hidrokarburoen gaineko tributuen bidezko bilketa 150.000 milioi euro ingurukoa izan zen Europan. Kopuru horretatik, Espainiak 11.426 milioi euroko ekarpena egin zuen, 2.401 milioi gasolinatik eta 9.025 milioi dieseletik (Zerga Agentzia, 2020). Hala ere, *per capita* zenbateko horiek kontuan hartzen baditugu, Espainia

hirugarren postuan dago hidrokarburoen gaineko tributuaren bidez diru-sarrera gutxien jasotzen dituzten herrialdeen artean, eta posizio hori bizilagunena baino askoz txikiagoa da.

Lehen konparazio batean, eta Europar Batasuneko 2021eko Petrolio-buletinaren datuen arabera, alde nabarmena ikusten da hidrokarburoen prezioetan Espainiaren, Portugalen eta Frantziaren artean, eta Espainian, hidrokarburoen gaineko Euro-Super 95eko zergak ezarritako grabaketa da, 472,69 eurokoa 1.000 litroko. Balio horiek Portugalen eta Frantzian aplikatzen direnak baino txikiagoak dira. Portugalen, hidrokarburoen gaineko zerga 647,98 eurokoa da 1.000 litroko. Frantziaren kasuan, hidrokarburoen prezioak ere Espainiakoak baino nabarmen handiagoak dira. Frantzian, Euro-Super 95 grabazioa: 691,3 €1.000 litroko. Datuek argi eta garbi erakusten dute Espainia, EBko laugarren ekonomia izan arren, hurbilen dituen herrialdeen oso atzetik dagoela hidrokarburoen gaineko zergen arloan. Hidrokarburoen gaineko zergari dagokionez, Europako batez bestekoa 691,3 euro ingurukoa da 1.000 litro gasolina bakoitzeko (Euro-Super 95). Horrek esan nahi du Espainia Europako batez bestekoaren azpitik dagoela, 218,61 euro inguru³⁷.

Kezkagarria da, halaber, orain arte Espainiako hiri bakar batek ere ez duela pilaketa-tasarik ezarri, eta hori arreta eskatzen duen errealitatea da. Nahiz eta tasa horiek ELGAko hainbat hiritan hartu diren trafikoaren erronkei aurre egiteko eta airearen kalitatea hobetzeko, Espainia oso atzeratuta geratu da hiri-pilaketari aurre egiteko neurri eraginkorrak hartzeari dagokionez, nahiz eta atmosfera grisaren etengabeko presentziak Madrilek bizirik dirauen kutsadura erakusten duen³⁸. Tasa horiei esker, itomen-arazoei aurre egiteaz eta airearen kalitatea hobetzeaz gain, garraio-aukera iraunkorragoen erabilera sustatuko litzateke, hala nola garraio publikoa, bizikleta eta mugikortasun partekatua. Neurri horiek funtsezkoak dira

³⁷ 2022ko zerga-erreformari buruzko liburu zuriaren arabera, egoera horrek, trantsizio ekologikoa oztapatzeaz gain, ez du behar bezala islatzen errepideko garraioari lotutako kanpo-kostuen garrantzia. EBn sektoreari aplikatutako zergek kanpo-kostu horien % 60 baino ez dute estaltzen, azpiegiturei lotutakoak barne hartu gabe. Horrek iradokitzen du Espainiako tributazioa indartu behar dela eremu horretan, eta hori konparatiboki ahula dela uste da.

³⁸ Smoga airea kutsatzeko modu bat da, eta partikula toxikoak eta kutsatzaile kimikoak nahasten ditu atmosferan. Smogak ondorio kaltegarriak izan ditzake giza osasunarentzat eta ingurumenarentzat, eta behin eta berriz agertzen den arazoa da biztanle asko dituzten hirietan, hala nola Madrilen. Madrilen, trafikoaren kutsadura, industria-emisioak eta eguraldi txarra konbinatu direlako sortu da smoga. Presio atmosferiko handiko eta euri gutxiko aldietan, kutsatzaileak lurretik gertu harrapatzen dituen inbertsio termikoa gertatzen da, eta, horren ondorioz, smog-geruza bat sortzen da. Smog geruza horrek nitrogeno dioxidoaren (NO₂), partikula esekien (PM₁₀ eta PM_{2.5}) eta beste kutsatzaile batzuen maila handiak ditu Madrilen, eta horrek biztanleen osasunerako arriskua dakar, batez ere arnasketa-arazoak eta arazo kardiobaskularrak dituztenentzat.

sozialki ekitatiboagoa den, ingurumena errespetatzen duen eta GJHekin bat datorren hiri-garapena lortzeko.

Espainiak klimaren erronkan atzera egin duelako kezka, ibilgailuen tributu-ordainketari dagokionez, batez ere automobilen tributu-ordainketari dagokionez, ez da ingurune akademikoetan soilik kritikatzeko. AIEk 2015eko txostenean jada adierazi zuen Espainiak nabarmen handitu behar zituela ingurumen-tributuak, garraio-sektorearekin lotutakoak barne, kutsadura-arazoei aurre egiteko eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko. ELGAK, 2015eko eta 2018ko txostenetan, Espainiari eskatu dio energia-kontsumoaren gaineko tributuak handitzeko eta zerga-egitura koherenteagoa ezartzeko, energia-eraginkortasuna eta emisioen murrizketa sustatzeko.

Ebidentziak agerian uzten du Espainiako agintariak garraioaren gaineko ingurumen-tributuen bilketa handiagoa sustatzera bideratutako neurriak ezartzeko premia larria dagoela. Azpiegiturak hobetzeko eta, azken batean, garraioak eragindako ingurumen-kaltea minimizatzeke azken helburua lortzeko -horrek dakartzan kanpo-eraginak barneratzea- garraioaren gaineko tributu sistemaren erreforma bat bideratzea beharrezkoa da. Energiaren eta garraioaren gaineko zerga-tasak handituz eta haren eraginkortasuna zabal frogatu duten sistemak txertatuz, hala nola, hirietako pilaketaren gaineko tributuak, Espainiak diru-sarrera publikoen fluxuak hobetu ditzake, eta, aldi berean, GJHak lortzeko jardunbide iraunkorrak sustatu. Zerga-ikuspegi horri esker, Espainia ELGAKo beste herrialde batzuekin lerrokatu ahal izango litzateke, eta garapen iraunkorrekiko konpromisoa erakutsiko luke.

III. ONDORIOAK: GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUEKIN BAT DATORREN IBILGAILUEN TRIBUTAZIORAKO PROPOSAMENAK

Espainian ibilgailu pribatuei aplikatutako tributuak sakon aztertu eta Europako egoerarekin konparatu ondoren, epe labur eta luzerako proposamenak aurkeztuko dira lan honetan, Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzen eta zerga-sistema berritzen lagun dezaketenak. Proposamen horiek hobekuntza-arloak identifikatzean eta irtenbide berritzaileak bilatzean oinarritzen dira, mugikortasunaren eremuan jardunbide iraunkoragoak hartzea sustatzeko eta ingurumena gehiago errespetatzen duen garraio-sistema baterako trantsizioa sustatzeko. Proposamen horien helburu nagusia zerga-politika eraginkorrak eta bidezkoak ezartzea da, gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak hartzea bultzatzeko, garraio-bide alternatiboen erabilera

sustatzeko eta garraioaren sektorean energia-eraginkortasuna sustatzeko, garapen iraunkorraren printzipioekin eta nazioan eta nazioartean ezarritako helburuekin bat etorritik.

1. Epe laburrerako proposamenak

1- Zirkulazio Zergan ingurumen-irizpideak txertatzea: Zirkulazio-zergaren berrebaluazioa funtsezko urratsa da Espainiak bere gain hartutako ingurumen-helburuekin koherenteago egiteko. Ildo horretan, neurri espezifikoak hartu behar dira zerga hori erreformatzeko. Proposatutako neurrietako bat zirkulazio-zerga kalkulatzeko da, ez bakarrik potentzia fiskalaren eta ibilgailuaren CO₂ isurien arabera, baita beste ingurumen-parametro batzuk kontuan hartuta ere. Horretarako, airearen kalitatean eta pertsonen osasunean eragin zuzena duten tokiko emisioak ebaluatu behar dira, hala nola, partikula kutsatzaileak eta zarata. Era berean, kontuan izan behar dira eraginkortasun energetikoarekin eta ibilgailuen erregai-kontsumoarekin lotutako beste alderdi batzuk.

2- IEDMTri aplikatutako *Bonus/Malus* sistema ezartzeko proposamena: IEDMT tresna erabakigarria da garraioaren sektorean trantsizio ekologikoa sustatzeko, ibilgailuak erosteko erabakiek baldintzatzen baitituzte, neurri handi batean, bizitza erabilgarriari lotutako ingurumen-inpaktuak. Zerga horiek emisio txikiko ibilgailuak erostea sustatzen dute, behar bezala diseinatuta eta ezarrita daudenean. Beraz, funtsezkoak dira ingurumen-kanpo-efektuak murrizteko eta Espainiaren ingurumen-konpromisoak betetzeko, ibilgailu berri bat erostean ikusgarritasun handia baitute.

Proposamen honen bidez, 2009an IEDMT zerga bihurtu zenetik (erositako ibilgailuari lotutako kilometroko CO₂ isurpenetan oinarritutako zerga) IEDMTk aurre egin behar izan dien erronkei heldu nahi zaie. Zehazki, zerga-tasak sektorearen bilakaera teknologikora egokitzeko eguneratu ez izanak murriztu egin du ingurumenaren aldetik arduratsuak diren portaerak sustatzeko gaitasuna, eta zerga-sistemaren barruan duten garrantzia murriztu du. Gainera, proposamen hori tamaina handiko ibilgailuen ugaltze gero eta handiagoari erantzuten dio, kanpo-efektu negatiboen murrizketan aurrera egitea oztopatzen baitute, hala nola emisio kutsatzaile handiagoak, baliabide materialen erabilera handiagoa, pilaketa gehiago eta istripu gehiago.

IEDMTn *Bonus/Malus* sistema bat ezartzeak onura fiskal esanguratsuak ekarriko lizkieke erosketaren unean emisio txikia duten ibilgailuei. Erosteke uneko pizgarri edo abantaila fiskalek eragin handiagoa dute kontsumitzaileen erabakietan zergen urteko ordainketek baino. Ikuspegi horren adibide arrakastatsuak dira Norvegia eta Herbehereak, non emisio txikiko ibilgailuen erosleek zerga-murrizketa handiak jasotzen dituzten matrikulatzen direnean; aldiz, emisio handieneko ibilgailuen erosleek zerga handiagoak ordaintzen dituzte. Era berean, Norwegian egiten den bezala, BEZaren salbuespena kontuan har daiteke igorpen txikiko ibilgailuentzat, non zero igorpeneko ibilgailuek ez duten % 5eko BEZa ordaindu behar. Horrek nabarmen murrizten ditu ibilgailuaren hasierako kostuak, eta lehiatzeko abantaila ematen die emisio txikiko ibilgailuei.

3- Pilaketa-tributua hiri nagusietan: jarduera ekonomikoa hiriguneetan pilatzea gero eta joera handiagoa da gizarte modernoetan. Bai gizabanakoek bai enpresek ideia eta lan-metodo osagarriak dituzten beste eragile batzuekiko hurbiltasunaren eta interakzioaren onurak jasotzen dituzte, eta horrek produktibitatea eta ekoizpenaren balioa handitzea dakar. Literatura ekonomikoak argi eta garbi babesten du ideia hau: biztanleria-dentsitatea %1 handitzeak produktibitatea %0,04 inguru handitzea dakar (Duranton eta Puga, 2020). Efektu positibo horiek, "aglomerazio-ekonomia" izenekoak, hirien etengabeko hazkundea eta hirietan sortzen den oparotasuna azaltzen duten arrazoi nagusietako bat dira. Hala ere, modu naturalean onartu ditugu hiri-inguruneetan bizitzearekin lotutako ondorio negatiboak, hala nola zarata, kutsadura atmosferikoa eta trafiko-pilaketa. Azken hamarkadetan, hiri askotako agintariak gero eta neurri murriztaileagoak ezarri dituzte ondorio kaltegarri horiek murrizteko, eta, bereziki, arrazoi nagusietako batean jarri dute arreta: automobil pribatuaren erabilera.

Hiriguneetan pilaketa-tributu bat ezartzea tokiko pilaketa- eta kutsadura-erronkei aurre egiteko neurri eraginkor gisa planteatzen da. Espainiako testuinguruan, Bartzelonako eta Madrilgo udalek gero eta interes handiagoa dute zergak edo pilaketa-tasak sartzeko aukerak aztertzeke. Hala ere, egokia litzateke ikuspegi hori beste hiri garrantzitsu batzuetara zabaltzea, hala nola Valentziara, Sevillara, Zaragozara, Malagara eta Bilbora, besteak beste. Eraitza eraginkorrak lortzeko, funtsezkoa da tributua irizpide hauetan oinarritzea: trafiko-bolumena, kokapen geografikoa eta eguneko ordua. Pizgarri ekonomiko egokiak sortuz, beharrezkoak ez diren joan-etorriak murriztea sustatuko da, eta pilaketa handiko eremuetara

sartzeko benetako beharra duten erabiltzaileei mesede egingo zaie. Ildo horretan, gomendagarria da zerga horrek sortutako diru-sarreraren zati bat garraio publikoa hobetzeko eta indartzeko erabiltzea.

Garrantzitsua da kontuan hartzea neurri horrek sektore batzuetan eragin ditzakeen eragin ekonomiko kaltegarriak. Beraz, ondorio negatibo horiek arintzeko estrategiak ezartzea iradokitzen da, hala nola, bilketatik datozen baliabideak garraio publikoaren kalitatea eta irisgarritasuna bultzatzen duten ekimenei esleitzea. Horrela, erabiltzaile batzuek izan ditzaketen zailtasun ekonomikoak konpentsatu nahi dira, eta mugikortasun-aukera iraunkorragoetarako trantsizioa sustatu.

4- Dieselaren zerga gasolinaren zergarekin parekatzea: EBk 1997ko Kiotoko Protokoloari emandako erantzunaren esparruan, diesela ingurumena gehiago errespetatzen zuen erregai gisa sustatu zen, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko, bereziki Barahona karbono dioxidoa (Nieto, E., 2013). Diesel motorrek erregai gutxiago eta aire gehiago behar dute gasolinazko motor baten errendimendu bera lortzeko, eta horrek esan nahi du egindako kilometro bakoitzeko CODE gutxiago isurtzen dela guztira (European Environment Agency, 2018). Espainian, dieselaren aldeko apustu hori hidrokarburoen gaineko zergan islatzen da, eta hori txikiagoa da dieselarentzat gasolina baino. Gaur egun, gutxi gorabehera 0,473 euroko zergak aplikatzen dira gasolina-litro bakoitzeko, eta 0,379 euro diesel litro bakoitzeko (Espainiako Ogasun Ministerioa, 2023). Horri esker, diesel ibilgailuen proportzio handiagoa lortu da Espainian EBko beste herrialde batzuetan baino, hala nola Alemanian (European Environment Agency, 2018).

